

Intervención en el homenaje a Aingeru Irigaray en Iruña

Jaun-andreok, arratsalde on denori:

Elizatik konbenturaño egin digute galtzara, adierazten digu abesti zar baten asierak, eta nik, orain, au antzeratuaz, esango dizute: Donostitik Iruñaraiño egin digutela galtzara.

Donostian ez da izan zarra Aingeru Irigaray jaunari eskañitako goratza-
rrea, eta era berean bere omenez argitaratutako liburu eder onen aurtezpena
egitea, *Eusko-Ikaskuntzaren* eskutik, noski.

Eusko Ikaskuntzak partaide ospetsua izan bai zuan Aingeru Irigaray, adis-
kide maitea.

Eusko Ikaskuntzak emen aurkezten dun liburu mardul ontan dezazkegu
Irigarayen lagun eta lankide izan ziren batzuen izenak. Batzuenak bakarrik,
noski, onelako ekintzetan gertatzen danez.

Eusko Ikaskuntzako Idazkari Nagusi jaunaren Eskaintzak sarrera emanaz,
Aingeru Irigarayri Omenaldia izena daraman liburuan arkitzen diren lanak zaz-
piñatuta banatzen dire: *Giza Ikuspideak eta omenduaren biziko oroimenak; Linguistika; Soziolinguistika; Toponimia eta onomastika; Literatura; Historia-geografia* eta, azkenik, *Etnografia*.

Gai zabaleko liburua, noski, gure aurrean daukaguna, Irigarayen ekintza
aberatsaren ispillu txiki baten antzera.

Nere uztez, liburu onen bilduma egoki lortua eta baliotsua da, interesga-
rria benetan.

Onekin nere iritzia adierazia dago, argi eta garbi. Bestalde, ez det gogo-
koa beiñere izan neronen iritzia saldu nai izatea, eta gutxiago ere beraiek
iñori sartzea.

Liburua emen dago, eta irakurriko dezute.

Denok dakizutenez, Aingeru Irigaray, Bidasoako Beran sortu zen, etxe polit eta ederrekin apainduaz arkitzen dan uri atoskor ontan.

1924 an egin zen Eusko Ikaskuntzako bazkide, eta 1933an Elkarte onen Batzorde Nagusikoa edo Permanente Batzordekoa izenpetua izan zan.

1941 garrenean, Euskaltzain osoa izendatu zuten, au bere seme Joxe Angeleri irakurtzen diot, beste berri askoren artean.

Itz gutxitan esateko, Aingeru Irigarayek izan zituen ar-emanak gutxi edo geiago, bere garaiean euskal jakintzaz keskatzen ziren elkarte guztiekin.

Eusko Ikaskuntzaren berpizte antzeko ori ezagutu zuan. On Agustin Zumalabe zanarekin eta on Jose Migel Barandiaranekin, Aingeru Irigaray jauna izan genduan, beste batzuen artean, eginkizun onen bizi sendoa emailletako bat.

Aingeru Irigaray no se movió cerca, en derredor de la *Sociedad de Estudios Vascos*, sino que vivió la misma Entidad. Vivió sus problemas y tuvo, siempre, la mente lúcida y desinteresada, que marcaba la senda a seguir en bien de nuestra cultura en general, y dentro de ésta, cómo no, nos señalaba de manera indubitada e inequívoca, la idónea andadura de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.

En el libro que aquí presentamos, en feliz oportunidad leo a su hijo José Angel:

Eusko Ikaskuntzak gerla aintzin izan ospe eta itzalaz oroitzapendua, egungo egunetan ere antzeko eginkizuna bete zezakeelakoan zegoen, bera behinik hala izan zedin jardun zen lanean.

Be-izenez edo izen-ordezkoekin, seudonimoekin, Aingeru Irigaray anitz lanen egillea genduen. Bai ere liburu interesgarrietan eta berdin aldizkarietako orrietan, sor-iturrietatik artutako ikerketaren lan berriak eskañiaz.

Ez dire aaztutzekoak ere bere itzultzaille ekintza trebeak, maixutasuna azaltzen dutenak, bein da berriz.

Liburuz gaiñera, Irigarayen lankidetasunak ikus dezazkegu *R.I.E.V.* edo *Nazio Arteko Eusko Ikaskuntzaren Aldizkarian*. *Gure Erria*, *Euskera*, *Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais-eko Boletinean*, *Egan*, *Príncipe de Viana*, etabar luze bat, egunkariak txokoratu gabe, batez ere *Diario de Navarra*.

Esana egiztatzea ez da zailla, erreza baizik. Ontarako neikoa bai degu bere seme ta jarraitzaille degun Joxe Angelek, ain zeatz, eta maitekor, aitaren omenez prestatu digun bibliografiari gainbeidatu bat ematea.

Irigaraytarrek, gure Erri jakintzaren alde zugaiz sendoa eta ondo tinkatua, fruitu aberatsekoa, emankorra. Bai Aingeru eta berdin ere bere aurrekoek eta bere ondorengoek.

Ez naiz mintzatuko Irigarayekin izan nintuan ar-emanetzaz: elkarrizketak, ibilialdi eta atsedenaldiak, denak, ez gutxi ere, aaztu eziñezko oroigarriak, urtean zear indartutako adiskidetasunaren barnean.

Bere urratsak, makiña bat uri eta auzo, kale ta basetxera eldu ziren, baita ere liburutegi eta artxiboetara. Emen, bere begi argieri erantzuten zioten esku bizkorrak, paper-sortari autsa kenduaz, era-berean, astiro-astiro, iker lana aurrera eramanez.

Auritzko sukalde atoskor baten esan ziraten, orain gazteleniaz esango dizuet, entzun bezala. Digo que recuerdo muy bien cómo en una acogedora cocina de Auritz-Burguete me dijeron: Donde está Vd. ahora sentado, estuvieron el P. Donostia y el doctor D. Angel Irigaray.

Oroitu deten gertakizun au ez det bakarra bere motan; baizik antzekoak gertatu zaizkit Aingeru Irigarayekin, bein baño geiagoetan, Naparroko lurraldetan, bereziki.

Benetako ikerlaria genduan Irigaray. Doktor sendagille edo mediku aipagarria zanez *begi ona* edo ojo clínico izan zuan. Bere iker lan aberatsean, berriz, agertu zigun ikerlariaren doai berezia edo *olfato investigador*.

Aingeru Irigaray, gizon atsegiña. Gorputzez liraña eta espirituz zabala. Adiskideen benetako adiskidea, bere ingurukoen languntzaille, biozgarri. Beti apal, beti leial, beti alai. Irute onek oiñarritzen dun ardatzaren inguruan, beti lanari lotuta. Eten gabeko ekintzan, bere Erri ta jakintzakin kezkatua.

He dicho *beti alai*, siempre alegre, jovial y es precisamente esa cualidad envidiable, muy propia del hombre de bien, la que resalto en el modesto trabajo que dedico a mi llorado *lankide* o compañero en las tareas de investigación etnográfica y etnológica.

Cierro estas líneas con un *allegro vivace* –señalo– muy en línea con el espíritu que en vida animó a mi erudito y recordado amigo Aingeru Irigaray.

Es la víspera de San Juan Bautista y una de las campanas de Berroeta rompe el silencio de la incipiente noche. Repica, tañe en pregón de fiesta. Anuncia que ha llegado el tiempo de encender el fuego del solsticio de verano, en rito fiel y secularmente observado.

Hoy, aquí, en su homenaje y memoria, en ofrecimiento que le hace la *Sociedad de Estudios Vascos -Eusko Ikaskuntza*, trazaré unas pinceladas sanjuaneras, que no me cabe la menor duda serían -serán- del agrado suyo. Para ello me valgo de mi pequeño fichero, que en parte permanece inédito.

San Juanek, esku baten sua eta bestean ura (San Juan, en una mano el fuego y en la otra el agua).

En Bedayo festejaban el fuego mientras decían:

Biba San Juan Bautista, aingeruak dantzan dabilte. Beren egune due ta beiltze.

Al calor de la fogata solsticial, en Marquina imploraban:

San Juan da San Juan
Estaukat besterik goguan.
Sorgiñak eta lapurrak erre.
Garixek eta artuek gorde.

He mentado el trigo, y recordaré ahora el *gari bedeinkatzea*, bendecir el trigo, que hizo la abuela de un caserío, a falta del cura para cumplir con el cometido de costumbre:

Ogi bedeinkatu santua
Lurrian indratua
Zeruan ordenatua
Au jaten dogunean
Izan dedi arima salbatua.

Después de esta breve divagación triguera notaré que en la localidad navarra de Erasun, en la mañana de San Juan se escuchaba:

Izar eder bat
Ateratzen da
urtean egun batean
Urtean egun batean eta
Ura San Juan goizean.

Y en esta mañana del 24 de junio, en Ullibarri Arana, después de beber en la fuente pública de Mari-Iturri, el bilingüismo alivia la redundancia, los jóvenes recorrían el pueblo, al tiempo que copleaban muy oportunamente:

Por la mañana de San Juan
Cuando la zorra madruga
El que mucho vino bebe
Con agua se desayuna.

Se dice que en la mañana de San Juan el sol sale bailando, que es el día del año más rico en luz, etc., etc.; mas aquí nos encontramos también con la indefectible excepción.

Una mujer fue invitada a la fiesta de San Juan, en el pueblo navarro de Saldías, y después de un buen desayuno se acostó para despertar ya de noche, ante lo cual reaccionó con este original comentario, fruto de la experiencia: *Ai San Juan, San Juan egune, argitu orduko illune!* (¡Ay día de San Juan, San Juan, en cuanto clarea, oscurece!).


Cerraré mis palabras con un dicho que escuché en el caserío Auzan bordandía de Bearzun, apartado barrio rural de Elizondo, en el Valle de Baztán, en este Valle tan conocido como querido por Aingeru Irigaray:

Anima ona mundutik, uri erauntsie zerutik. (Alma buena que abandona el mundo, aguacero del cielo).

Aquel 28 de noviembre de 1983, cuando me llegó la triste nueva del fallecimiento de nuestro querido amigo Aingeru Irigaray, en Tolosa llovía.

Aingeru Irigarayeri gure agurra, betiko oroitza biziaren barnean.

Eskerrik asko. Muchas gracias.



[Intervención en el homenaje a Aingeru Irigaray en Iruña] / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. - Donostia : Eusko Ikaskuntza. - T. XXXII, nº 1 (1987), p. 255-258